UROLA KOSTAKO UDALERRIETAN ERABILITAKO ARROPA, BESTELAKO EHUNKIAK ETA NEURRI TXIKIKO OBJEKTU BERRERABILGARRIAK BILDU ETA KUDEATZEKO ZERBITZUA PROZEDURA IREKI BIDEZ KONTRATATZEKO PRESKRIPZIO TEKNIKO PARTIKULARREN AGIRIA.

AURKIBIDEA

1. KONTRATUAREN XEDEA 2
2. KONTRATUAREN EXEKUZIOA 2
2.1. ARROPA ETA OBJEKTU TXIKI BERRERABILGARRIEN BILKETA ETA GARRAIOA 2
2.1.1. Bilduko diren hondakinak 2
2.1.2. Bildutako arropa eta objektu txiki berrerabilgarrien kopurua 2
2.1.3. Objektu txiki berrerabilgarriak eta erabilitako arropa biltzeko baliatutako edukiontziak 3
2.1.4. Arropa eta objektu txiki berrerabilgarrien gaikako bilketa 4
2.1.5. Arropa eta objektu txiki berrerabilgarriak garraiatu eta pisatzea 5
2.2. BILDUTAKO ARROPA ETA OBJEKTU TXIKI BERRERABILGARRIEN KUDEAKETA 5
2.3. EDUKIONTZIAK GARBITZEA ETA MANTENTZEA 6
3. LANGILEAK 6
4. BALIABIDE MATERIALAK 7
5. ANTOLAKETA ETA KONTROL-SISTEMAK 7
5.1. UDAL ELKARTEARI INFORMAZIOA HELARAZTEA 7
5.2. SEI HILEZ BEHINGO ADIERAZPENA 8
6. MEMORIA TEKNIKOA 8

1. KONTRATUAREN XEDEA

Kontratu honen xedea da Urola Kostako Udal Elkartea osatzen duten udalerrietako kaleko eta garbiguneetako edukiontzietan herritarrek utzitako objektu txiki berrerabilgarriak eta erabilitako arropa/ehunkiak gaika biltzea eta kudeatzea. Kontratuaren baitan honako lanak burutu beharko dira:

- Kaleko edukiontzietan eta garbiguneetan utzitako objektu txiki berrerabilgarriak eta erabilitako arropa biltzea.
- Dagokion instalaziora garraiatu, materialak sailkatu eta berrerabiltzeko egokitzea.
- Kaleko eta garbiguneetako edukiontziak garbitzea eta mantentzea.

Lan horiek burutuko dira baldintza teknikoen agiri honetan eta esleipen kontratuan ezarritakoa kontuan hartuz.

2. KONTRATUAREN EXEKUZIOA

2.1. ARROPA ETA OBJEKTU TXIKI BERRERABILGARRIEN BILKETA ETA GARRAIOA

2.1.1. Bilduko diren hondakinak

Honako material hauek jasoko dira:

I. Erabilitako arropa, oinetakoak, osagarriak, etxeko arropa eta ehunak oro har, bai berriz erabiltzeko moduan badaude, bai hondatuta badaude eta ezin badira berriz erabili.

II. Mota guztietako neurri txikiko objektu edo produktu berrerabilgarriak; besteak beste, liburuak, jostailuak, aparatu elektrikoak eta elektronikoak, imitaziozko bitxiak, bazarreko objektuak eta, oro har, erabiltzailearen ustez, eta, hala behar izanez gero, garbiketa-, konponketa- edo egokitze-lanak egin ondoren, berriz erabiltzeko behar bezain ona den kontserbazio- edo funtzionamendu-egoeran dagoen edozein objektu edo produktu.

Ez da onartuko elementu ebakitzailerik, edo hausturagatik ebakitzaile izan daitekeenik: labanak, kristalak, baxerak eta abar. Zerbitzua neurri txikiko objektu edo produktuetarako baino ez da izango, eta, alde horretatik, kaleetako edukiontzietan sartzeko ahoaren neurria izango da faktore mugatzaile bakarra.

Erabiltzaileek edukiontzietan uzten dituzten material guztiak bildu eta kudeatuko dira, nahiz eta eskatutakoak ez izan. Gainera, materialek duten egoera, hezetasun-maila eta beste faktore batzuk ez dira arrazoi izango horiek ez jasotzeko.

2.1.2. Bildutako arropa eta objektu txiki berrerabilgarrien kopurua

I.eranskinean, 2025 urtean bildutako neurri txikiko objektu berrerabilgarrien eta jantzi erabilien kopurua jaso da, udalerriz udalerri. Ondorengo taulan azkeneko 4 urteetan jasotako kopuruak eta batezbestekoa ageri dira:

UDALERRIA / URTEA	2022	2023	2024	2025
AIA	12.419	12.254	11.383	14.117
ORIO	16.908	17.542	18.444	21.320

GETARIA	59.455	65.330	53.045	63.113
ZARAUTZ	129.937	131.231	131.135	152.287
ZUMAIA	82.558	85.315	73.997	80.649
GUZTIRA (kg)	301.277	311.672	288.004	331.486

2.1.3. Objektu txiki berrerabilgarriak eta erabilitako arropa biltzeko baliatutako edukiontziak

Erabiltzaileek neurri txikiko objektu berrerabilgarriak eta erabilitako arropa kalean horretarako jarritako edukiontzi berezietan utzi ahal izango dituzte, ordutegi-mugarik gabe eta asteko edozein egunetan.

Era berean, udal elkartearen hiru garbiguneetan jarritako edukiontzietan utzi ahal izango dira instalazioen funtzionamendu-orduetan. Honakoak dira garbiguneen helbideak eta ordutegiak:

GARBIGUNEA	UDALERRIA	HELBIDEA
Aia-Orioko garbigunea	Aia	Ubegun Industrialdea
Zarauzko garbigunea	Zarautz	Abendaño Industrialdea
Zumaiako garbigunea	Zumaia	Jose Mari Korta industrialdea

Gaur egun, hau da garbiguneen funtzionamendu-ordutegia:

- Astelehenetik ostiralera, 8:30etik 13:30era eta 15.00etatik 17.30era.
- Larunbata, igandea eta jai egunak itxita.
- Abuztuan: 8:30etik 13:30era.

Lizitazioa argitaratzen den momentuan Zarauzko garbigune berria martxan jartzeko prozesua abian da eta beraz, irekitzen den momentuan, bertatik jaso beharko dira materialak, Zarauzko gaur egungo garbigunetik beharrean. Garbigune berriaren kokapena honakoa da:

GARBIGUNEA	UDALERRIA	HELBIDEA
Zarauzko garbigune berria	Zarautz	Abendaño Industrialdea (21 poligonoko 1 eremua)

Edukiontziak **II. eranskineko** zerrendan azaltzen diren bide publikoko kokalekuetan kokatuta egongo dira. Minigarbiguneak kokatuta dauden guneetan, arropa biltzeko edukiontziak eremu berean, horietatik kanpo, kokatuko dira.

Kontratuak irauten duen bitartean, eta udal elkartearen zerbitzu teknikoek hala eskatuta, enpresa esleipendunak adierazten zaizkion lekuetara eraman beharko ditu edukiontziak.

Halaber, zerbitzu teknikoek eskatuta eta kontratuak irauten duen bitartean antzematen diren beharrei erantzuteko, enpresa esleipendunak handitu egin beharko du zerbitzuari lotutako edukiontzien kopurua bost (5) unitatetan. Gehikuntza hori ez da inoiz kontratuaren aldaketatzat hartuko. Edukiontzi horiek Urola Kostako Udal Elkarteak zehazten dituen puntuetan jarriko dira, gehienez ere hilabeteko (1) epean.

Kontratuari atxikitzen zaizkion edukiontzien erosketa-kostuak bost (5) urteko epealdian banatuko dira, urte bakoitzean kopuru bera sartuta. Era horretara, kostu horiek kontratuaren indarraldiaren urteko esleipen-prezioan gehi luzapeneko lau urteetan sartuko dira. Horrenbestez, kontratua amaitutakoan,

esleipendunak edukiontziak eta horien titulartasuna Urola Kostako Udal Elkartearen esku utziko ditu, inolako kontraprestazio ekonomikorik eragin gabe.

Hala ere, kontratuak ez badu aurreikusitako luzapen osoa agortzen, kontratistak eskubidea izango du Urola Kostako Udal Elkartearen eskutik jasotzeko bost (5) urtera arte falta den aldian banatzeko dagoen eskuratzetik eratorritako amortizazio-kostuen zatia.

Objektu txiki berrerabilgarriak eta arropa erabilia biltzeko baliatutako edukiontzien ezaugarri teknikoak:

Edukiontziak udal elkartearen jabetzakoak dira eta diseinu espezifikoa dute, erabiltzaileek neurri txikiko objektu berrerabilgarriak eta erabilitako arropa utz ditzaten, eta honako espezifikazio tekniko hauek bete behar dituzte:

- Edukiontziek 3.000 litro biltzeko gaitasuna dute eta 1,5 mm lodiera dute.
- Egitura sendoa izan dute eta osatzen duten elementu guztiak barne, korrosioaren aurka behar bezala tratatuta egon behar dute.
- Arropa kargatzeko, sistema birakari bat du ardatz bertikalaren gainean, forma obalatuarekin; Horrek, lapurretak saihesten laguntzen du.
- Deskarga egiteko sarrerako ateak gutxienez sarraila bat izango du, edo segurtasun-gailu bat, manipula dezaten eragozteko.
- Edukiontzi bakoitzak, hondakinak sartzeko, gutxienez aho bat izango du aurrealdean, buxadurarik ez gertatzeko diseinatuta. Era berean, materiala ateratzea eragozteko diseinatuta egongo da.
- Sarrerako ahoen diseinuak nahikoa berme izango du litezkeen istripu-arriskuen aurrean.
- Edukiontzia pintura iraunkorrez pintatuta dago.
- Testu guztiak euskaraz eta gaztelaniaz agertuko dira baina kasu guztietan euskarak lehentasuna izango du. Ezingo du merkataritza- edo publizitate-aipamenik izan.

III.eranskinean, Urola Kosta eskualdean instalatuta dauden egungo edukiontziaren hainbat irudi daude.

2.1.4. Arropa eta objektu txiki berrerabilgarrien gaikako bilketa

Esleipendunak edukiontzi bakoitzerako egutegia eta bilketaren maiztasuna zehaztu eta proposatuko ditu, azken urteetan erabilitako zenbat arropa eta zenbat objektu berrerabilgarri bildu den kontuan hartuta. Proposamenek kontuan hartu beharko dituzte udalerriaren tamaina, edukiontziak husteko gutxieneko maiztasunak (II. eranskina), erabilitako arropa eta objektu berrerabilgarriak sortzeari buruzko zenbatespenak, eta zerbitzu horrek ez duela inolako distortsiorik eragingo eta ez dituela eragotziko asteko azokak, ibilgailuen zirkulazioa eta, oro har, herritarren jarduera. Bilketa-ibilbideetan aldaketak egiteko beharra egongo balitz, udal elkartearen zerbitzu teknikoek aldez aurretik onetsi beharko dute.

Lizitatzaileek beren eskaintzetan argi zehaztuko dute zer ibilgailurekin proposatzen duten bilketak egitea eta zer prozedura proposatzen den materialak biltzeko, kargatzeko eta, hala egokituz gero, sailkatu edo trinkotzeko jasoketa ibilgailuan, garraioan edo deskargatzeko plantan.

Erabilitako arroparen eta neurri txikiko objektu berrerabilgarrien bilketa behar bezala hornitutako eta errotulatutako ibilgailu industrial batean egingo da (bilketa-ibilgailu guztiek derrigorrezko segurtasun- eta seinaleztatze-sistemak izango dituzte), eta ibilgailu hori uneoro egongo da ondo identifikatutako langile batzuen ardurapean. Bilketa-saio bakoitzean, esleipendunak edukiontziaren sarrerako ahoan, errotan edo estalki baskulatzailean trabatuta dauden elementuak kenduko ditu, eta edukiontzia erabiltzeko prest utziko du. Gainera, kontratistak kontu handiz jokatu beharko du zerbitzua ematean, espaloiak eta galtzadak ez zikintzeko.

Erabilitako arropa eta neurri txikiko objektu berrerabilgarriak biltzeko lanetan, kontratistak edukiontzietatik kanpo aurkitzen badu arropa erabilia edo, oro har, zerbitzu honetan eskatutako materiala, esleipendunak bildu eta kudeatu beharko ditu material horiek, haien itxura, zer-nolakoa eta egoera edozein izanda ere, edukiontziaren barruko gainerako materialekin batera. Beste edozein etxehondar bada, hori ere jaso egingo da, eta hurbilen dagoen hondakin-edukiontzi egokian utzi.

Udal elkartearen zerbitzu teknikoak kontratistari jakinarazten badio arropa erabilia eta neurri txikiko objektu berrerabilgarriak daudela edukiontzietatik kanpo, kontratistak jakinarazpena jaso eta gehienez ere 24 orduko epean jaso beharko du.

Esleipendunak bildutako hondakinen artean balioa duten objektuak aurkitzen baditu, dagokion udalerriko Udaltzaingoaren esku jarri beharko ditu, beren jabeak direla egiaztatzen dutenei itzultzeko.

Bilketako langileek telefono mugikorra izan beharko dute, edo harreman zuzena izateko beste bitartekoren bat, udal elkartearen zerbitzu teknikoak bilketa-taldearekin harremanetan jarri ahal izateko beharrezkoa litzakeen kasuetan. Esleipenduna izango da edukiontziek eta daukaten edukiak hirugarrenei eta ingurumenean egindako kaltearen erantzulea, bai kontratatutako zerbitzuak bete bitartean egindako kalteena ere.

2.1.5. Arropa eta objektu txiki berrerabilgarriak garraiatu eta pisatzea

Bildutako materialen garraiorako, kontratistak mota horretako materialak errepidetik garraiatzeari buruz indarrean dagoen araudia bete behar du eta hondakin ez-arriskutsuen garraiolari gisa inskribatua egongo da hondakinen ekoizpen eta kudeaketa erregistroan.

Bildutako materiala kalibratutako baskulen bidez pisatu beharko da eta lizitatzaileek pisaketak egiteko erabiliko diren baskula edo baskulen ezaugarriak zehaztuko dituzte eskaintzetan. Era berean, udal elkarteak egiaztapen-pisaketak egiteko eskubidea izango du, beharrezkotzat jotzen duen kasuetan.

Bildutako materialen deskarga esleipendunak bere eskaintzan adierazitako tratamendu- eta sailkapen-instalazioan egingo da eta debekatuta egongo da materialak beste edozein gunetan deskargatzea, udal elkarteak berariaz baimendu ezean.

2.2. BILDUTAKO ARROPA ETA OBJEKTU TXIKI BERRERABILGARRIEN KUDEAKETA

Bildutako materialen sailkapena, egiaztapena, egokitzapena eta, oro har, kudeaketa esleipendunak bere eskaintzan adierazitako tratamendu- eta sailkapen-instalazioan egingo dira.

Bildutako material guztiek trataera egokia izateaz arduratuko da esleipenduna, Europako legediak ezarritako hierarkiari jarraiki; Lehentasuna izango da bildutako materialak berrerabiltzera bideratzea eta horretarako, berrerabiltzeko prestaketa-lan egokiak egin beharko dira.

Bildutako materialak izaeraren eta egoeraren arabera aztertu eta sailkatuko dira; hala egokituz gero, garbitu, higienizatu, konpondu, egokitu, etiketatu eta abar egingo dira, eta bere saltokien bidez, doan emanda edo beste bide batzuk erabiliz banatuko ditu, uneoro beteta aplikatzekoak diren lege-xedapenak, objektuak aurrez eraldatu gabe berrerabili ahal izateko.

Esleipendunak, lehentasunez, birziklatzera bideratuko ditu bildutako materialen artean berrerabili ezin diren hondakinak; besteak beste, berrerabili ezin daitezkeen ehunak, berrerabili ezin daitezkeen aparatu elektriko eta elektroniken hondakinak, txatarra, papera eta kartoia, plastikoa eta beste hondakin birziklagarri batzuk.

Birziklatu ezin diren frakzioak balorizazio energetikora bideratu ahal izango dira. Esleipendunak espresuki debekatuta izango du bildutako materialak suntsitzera bideratzea aurretiazko tratamendurik gabe. Aurretiazko kudeaketa-lanak aplikatu ondoren (berrerabili, birziklatu, energetikoki balorizatu) geratutako errefusa baino ezingo da suntsitzera bideratu.

Esleipendunak bildutako materialen kudeaketaren trazabilitatea bermatu beharko du.

2.3. EDUKIONTZIAK GARBITZEA ETA MANTENTZEA

Edukiontzi guztien egoera higieniko eta sanitario egokia eta itxura estetiko ona bermatzeko, kontratistaren betebeharra izango da zerbitzuari atxikitako baliabide material guztiak ondo garbitu eta desinfektatzea.

Edukiontziak garbitzeko lan arruntak “in situ” egingo dira. Horretarako, kontratistak neurri egokiak hartuko ditu garbiketa-lanen ondorioz, bai eta garbiketa-ibilgailua edukiontziaren inguruan aparkatzearen ondorioz ere, ondasunei edo pertsonei kalterik ez eragiteko.

Edukiontziak eta haien ekarpen-eremuak gutxienez kanpotik garbituko dira hiru hilean behin.

Edukiontziari dagokion ekarpen-eremua honako hau izango da: edukiontziaren inguruko bi metroko lurzatia. Garbitze-lanak bukatuta, edukiontziaren eta haren ekarpen-eremuen kanpoko azalerak ez du zikinkeriarik izan behar. Beharrezkoa balitz, itsatsita dauden txartelak, grafitiak, eranskailuak eta pintadak kendu egingo dira.

Gutxieneko maiztasun hori alde batera utzita, ez-ohiko egoera batean aurrean udal elkarteak beharrezkoa ikusten badu eta hala eskatzen badu, kontratistak garbitu egin beharko ditu edukiontziak, ohiko garbiketen artean zikinkeria-zantzuak badituzte.

Garbiketa-lanak egunez egingo dira, inoiz ez 8:00ak baino lehen, bizilagunei eragozpenik ez sortzeko.

Mantentze-lanak “in situ” egin ezin badira, horiek nahitaez egin beharko dira kontratistaren instalazio finkoetan edo udal elkarteak aldez aurretik baimendutako hurbileko eremu batean.

3. LANGILEAK

Kontratistak zerbitzua emateko behar diren langileak izango ditu une oro, Baldintza Teknikoen Agiri honetan eta aurkeztutako eskaintzan deskribatutako jarraibide eta zehaztapenei jarraikiz.

Zerbitzuaren buru eta arduradun nagusi gisa, kontrataren alderdi guztietan erabakiak hartzeko behar adinako gaitasuna duen pertsona bat egon beharko da Pertsona horrek zuzeneko harremana izango du udal elkartearekin.

Kontratistak behar diren giza baliabideak izan beharko ditu une oro kontratuaren xede den zerbitzua behar bezala gauzatzen dela ziurtatzeko eta gerta litezkeen gorabeherak estaltzeko; hala nola, eritasun edo istripuagatiko bajak, baimenak, lan sindikalak, oporrak eta behar bezala justifikatutako beste arrazoi batzuk, eta ustekabeko bajak eta absentismoa. Kontratistak lanuzte edo baja horiek berehala bete behar ditu.

Aurrekoa kontuan hartuta, lizitatzaileek, beren proposamenetan, kontratatutako zerbitzuak eraginkortasunez egiteko behar diren langileak aurreikusteko proposamena aurkeztu beharko dute, bai eta langileak ordezkatzeko plana ere.

Langile guztiek behar bezala identifikatuta egon beharko dute, zerbitzuen segurtasuna bermatzeko, eta identifikazio-sistema eraginkorrena proposatu beharko dute.

Esleipendunak lanaren, Gizarte Segurantzaren eta laneko segurtasun eta higienearen arloan indarrean dauden legezko xedapenak bete behar ditu, bai eta kontratuari aplikagarri zaion gainerako araubidea ere. Urola Kostako Udal Elkarteak ez du inolako erantzukizunik izango xedapen horiek betetzen ez badira.

Esleipendunak Gizarte Segurantzari, lan-istripuei eta PFEZari lotuta dagozkion lan-betebehar guztiak bete behar ditu.

Urola Kostako Udal Elkarteak ez du esleipendunaren langileekin harreman juridikorik, lan-harremanik edo bestelakorik izango, ez kontratuak irauten duen bitartean, ez kontratua amaitzen denean.

Esleipendunaren kontura izango dira lehiaketa honen ondorioz sortzen diren betebehar, kalte-ordain eta erantzukizun guztiak.

4. BALIABIDE MATERIALAK

Esleipendunak zerbitzua behar bezala burutzeko behar diren bitarteko guztiak jarriko ditu.

Zerbitzuei atxikitako bitartekoek bermatu behar dute zerbitzua burutuko dela denbora-tarte egokiarekin, lanen plana garaiz egin eta sor litekeen edozein ustekabeko gainditu ahal izateko. Erabili beharreko materiala zerbitzuaren eskakizunetarako egokiena izango da.

Kontratari atxikitako baliabide material guztiak lanaldi partzialean jarriko dira udal elkartearen zerbitzuan, hau da, zerbitzua ematen den unean bakarrik.

Lizitatzaileek, beren eskaintzetan, zerbitzu bakoitzean erabili beharreko materiala adieraziko dute, eta argi eta garbi esango dute zer jotzen den beharrezko materialtzat zerbitzuak eta erreserbako materiala behar bezala emateko; hau da, normalean zerbitzuan egon ez arren, matxuragatik edo noizbehinkako errefortzuagatik zerbitzu-materialak ordezteko erabiliko dena.

Zerbitzurako material guztia lizitatzaileek deskribatu beharko dute, beharrezkotzat jotzen dituzten datu guztiekin, ahalik eta hobekien ezagutzeko. Bereziki balioetsiko dira ibilgailuen gasa eta zarata murrizteko neurriak.

Eremu publikoan lan egiten duten ibilgailu guztiak ezin hobeki ikusi ahal izango dira. Nahitaezko segurtasun-sistemak izango dituzte, eta behar diren seinalizazio-sistemak, oinezkoentzako eta ibilgailuen trafikorako arriskuak hobeki atzeman eta saihesteko.

Kontratuari atxikitzen zaizkion edukiontzien erosketa-kostuak bost (5) urteko epealdian banatuko dira, urte bakoitzean kopuru bera sartuta. Era horretara, kostu horiek kontratuaren iraupen-epealdiko urtebete eta luzapeneko beste lau urteren esleipen-prezioan sartuta geratuko dira. Horrenbestez, kontratua amaitu ondoren, esleipendunak udal elkartearen eskura utziko du, transferitzeaz gain, haien titulartasuna, inolako ordain ekonomikorik jaso gabe.

Nolanahi ere den, kontratuari aurreikusitako luzapen-epeak aplikatzen ez bazaizkio, esleipendunak eskubidea izango du udal elkartearen eskutik jasotzeko bost (5) urteko epealdia osatu bitartean jasoko lukeen ondasunen amortizazio-kostuen zatia.

5. ANTOLAKETA ETA KONTROL-SISTEMAK

5.1. UDAL ELKARTEARI INFORMAZIOA HELARAZTEA

Hilabete bakoitzeko lehenengo 5 egunetan, esleipendunak honako hauek aurkeztuko dizkio uda elkarteari:

a) Amaitutako hilabetean edukiontzi eta garbigune bakoitzean bildutako arropa erabiliak eta neurri txikiko objektu berrerabilgarriak, kilotan.

b) Hilabete horretan instalazioan egindako pisaketen eta deskargen erregistroa: ibilgailuaren matrikula, bitarteko pisaketak (baskularen identifikazioa, eguna eta ordua, pisu gordina eta garbia) eta deskargak.

c) Garbiketa- eta mantentze-lanen eta hilabetean izan diren gorabeheren xehetasunak.

Edukiontzietako matxurak edo zerbitzua ematean gertatzen den beste edozein gorabehera larri berehala jakinaraziko zaizkie udal elkartearen zerbitzu teknikoei.

5.2. SEI HILEZ BEHINGO ADIERAZPENA

Sei hilez behin, enpresaren arduradun batek sinatutako ziurtagiri bat aurkeztuko du esleipendunak, eta bertan adieraziko da azkenean zertarako erabili diren kontratu honen arabera kudeatutako materialak.

a) Materialen frakzioak:
- Berrerabiltzekoak: erabilitako arropa, etxeko arropa, oinetakoak, osagarriak eta ehunak oro har, aparatu elektrikoak eta elektronikoak, liburuak, jostailuak, imitaziozko bitxiak, bazarreko artikuluak eta berrerabilgarriak oro har.
- Birziklatzekoak edo energetikoki balorizatzekoak: berrerabili ezin diren ehunak, berrerabili ezin diren aparatu elektriko eta elektronikoen hondakinak, txatarra, papera eta kartoia, plastikoa eta abar.
- Suntsitzeko errefusa.

b) Frakzio eta hartzaile bakoitzerako eman beharreko informazioa:
- Hartzailearen sozietate-izena.
- Helmugako instalazioaren identifikazioa eta haren helbidea.
- Materialaren zertarako erabili den helmugan.
- Hartzaile bakoitzari seihilekoan bidalitakoa, kilotan.

Esleipendunak adierazpenean azaltzen diren emaitzak eta materialen trazabilitatea justifikatzeko edo hobeto deskribatzeko beharrezkotzat jotzen dituen dokumentuak gehituko dizkio sei hilean behin bidaltzen den adierazpenari; besteak beste, materialak ematearen frogagiriak (albaranak, fakturak, DSC, garraio-gutunak edo beste batzuk), txostenak, argazkiak eta abar.

Lizitatzaileek euren eskaintzetan proposatzen duten informazioaren xehetasun maila definituko dute, Urola Kostako kantitateak zehazteko edo aurreikusteko proposatzen den metodoa, eta seihilekoko adirazpenean gehitzea proposatzen duten dokumentazio osagarria.

Positiboki baloratuko dira ezarritako minimoa baino handiagoa den informazioaren xehetasuna, Urola Kostako kantitateak zehazteko edo aurreikusteko proposatutako metodoaren fidagarritasuna eta ordezgarritasuna (karakterizazioak, zeharkako aurreikuspenak edo beste batzuk), eta udal elkarterari materialen kudeaketari, trazabilitateari eta berrerabilpenaren egiazko mailari buruzko informaziorik onena emateko dokumentazio osagarria.

Zerbitzuari jarraipena egiteko hobe dela ikusten bada udal elkarteak aldatu egin ahalko du sei hilean behingo txostenean eskatutako informazioaren edukia edota formatua, eta esleipendunak eskatzen zaion informazioa eman beharko du.

Udal elkarteak eskubidea izango du kontrastitak sei hilean behingo adirazpenean aurkezten duen informazioa kontrastatzeko, eta, horretarako, EAEko Ingurumen Organoak beste iturri batzuekin alderatuta ematen dion informazioarekin erkatuko du. Materialen kudeaketan praktika txarrak badira, praktika txar horiek kontratu hau indargabetzeko arrazoia izango dira.

6. MEMORIA TEKNIKOA

Lizitatzaileek memoria tekniko bat aurkeztu beharko dute eskainiko den zerbitzuari buruzko alderdi guztiak jorratzen dituena. Memoria horretan zehaztuko dira kontratuaren objektu diren lanak antolatu eta eskaintzeko modua eta proposatutako giza baliabideak eta baliabide materialak. Memoriak gehienez 30 orrialde izango ditu eta baloratuko diren irizpideak ondorengoak dira:

- **Edukiontzien bilketaren plangintza**
  - Maiztasunak, ibilbideak, egutegia, ordutegiak eta biltzeko prozedura eta sistematika.

- **Bilketa eta garraiorako proposatutako bitarteko materialak eta giza baliabideak**
  - Jasotako materialen bilketa eta garraiorako erabiliko diren baliabide materialak eta giza baliabideak.

- Materialaren garraiorako aurreikusitako kilometroak, denbora eta langileak.
- Bitarteko pisaketak, erabiliko diren baskulak eta aurreikusitako deskargak.

- **Bildutako materialen tratamendua.**

  - Proposatzen den tratamendu-instalazioaren identifikazioa: kokapena, ekipoak eta bitarteko materialak.
  - Bildutako materialak sailkatzeko proposatzen diren kategoriak edo frakzioak.
  - Berrerabiltzeko proposatutako garbiketa-, konponketa- edo prestaketa-lanak.
  - Objektu edo produktu berrerabilgarriak banatzeko, doan emateko edo saltzeko proposatutako bideak.
  - Bildutako materialetan dauden eta berrerabili ezin diren hondakinen kudeaketa-proposamena.

- **Edukiontzien garbiketa eta mantentze lanak egiteko prozedurak.**

  - Bilketa eta mantentze lanen maiztasunak, ibilbideak, egutegia eta gutxi gorabeherako ordutegiak.
  - Erabiliko diren ekipoak eta produktuak eta garbiketa eta mantentze egoera kontrolatzeko prozedurak.

- **Sei hilez behingo adierazpena.**

  - Adierazpena osatzen duen informazioaren xehetasun maila.

ERANSKINAK

I. ERANSKINA

UROLA KOSTAKO EDUKIONTZIETAN 2025EAN JASOTAKO ARROPA ETA OBJEKTU TXIKI BERRERABILGARRIEN KOPURUA (KG)

II ERANSKINA

ARROPA ETA TAMAINA TXIKIKO OBJETUAK BILTZEKO EDUKIONTZIEN KOKAPENA ETA HUSTUTZEKO MAIZTASUN MINIMOA

III ERANSKINA

UROLA KOSTAN GAUR EGUN INSTALATUTA DAUDEN EDUKIONTZIEN IRUDIAK

I.ERANSKINA: UROLA KOSTAKO EDUKIONTZIETAN 2025EAN JASOTAKO ARROPA ETA OBJEKTU TXIKI BERRERABILGARRIEN KOPURUA (KG)

PUNTUAK	Urtarrila	Otsaila	Martxoa	Apirila	Maiatza	Ekaina	Uztaila	Abuztua	Iraila	Urria	Azaroa	Abendua	2025
AIA													
Juan Etorle kalea 15, Lardizabal parkina (birziklapen-etxola)	179	457	402	658	540	526	521	517	432	507	421	290	5.450
Andatza 21, San Pedro, Olaetxe parean	112	77	144	119	126	128	201	102	158	257	217	190	1.831
Armendigain kalea 30	159	91	158	170	153	280	197	295	149	326	268	187	2.433
Santiagoerreka auzoa 16, Babes ofizialeko etxe ondoan	143	154	78	114	95	134	187	115	140	203	205	261	1.829
Aia-Orioko garbigunea	344	100	239	150	190	173	278	300	288	163	159	190	2.574
GUZTIRA	937	879	1.021	1.211	1.104	1.241	1.384	1.329	1.167	1.456	1.270	1.118	14.117
GETARIA													
Sahatsaga kalea 04, Garaje ondoan, (birziklapen-etxola)	433	481	592	617	708	793	920	473	579	656	627	475	7.354
Portua 19, Viveros San Anton parean	200	173	139	219	254	370	329	298	308	273	168	188	2.919
Herrerieta kalea 12, Merke supermerkatu aurrean	404	345	299	385	621	638	659	555	487	611	532	372	5.908
Kristobal Balentziaga kalea 14, anbulategi aurrean	353	210	252	407	382	395	301	227	382	457	363	292	4.021
San Prudentzio auzoa 07, San Prudentzio hotela	77	36	22	87	70	73	11	150	65	189	166	172	1.118
GUZTIRA	1.467	1.245	1.304	1.715	2.035	2.269	2.220	1.703	1.821	2.186	1.856	1.499	21.320
ORIO													
Futbol zelaia, Zelai Ondo plaza 10 (Birziklapen-etxola)	914	1.041	1.222	1.286	1.581	1.624	1.199	1.468	1.369	1.459	1.170	848	15.181

Zaragueta herri eskola (Abaromendi 11)	249	235	402	502	258	464	636	196	467	506	618	456	4.989
Anibarko portua poligonoa 16	326	368	403	826	573	585	762	538	547	578	564	557	6.627
Arrantzale kalea 04, Herri ikastola aurrean	1.010	907	909	967	1.403	1.282	1.192	912	1.017	1.110	1.256	897	12.862
Estropalari kalea 18	503	493	474	534	806	699	634	318	615	616	940	749	7.381
Iturbide kalea 04, Danbolin ondoan	480	547	578	729	851	983	809	474	780	982	986	695	8.894
Aita Lertxundi, 22 Cta. Nacional 634	494	583	424	800	568	723	729	368	704	639	540	608	7.180
GUZTIRA	3.975	4.174	4.412	5.644	6.040	6.360	5.961	4.274	5.499	5.890	6.074	4.810	63.113
ZARAUTZ													
Allemendi kalea 02, Torre Sarakatua (Masusta)	210	265	88	232	232	350	476	207	219	350	261	209	3.099
Allemendi kalea 50, Torreoiko parke sarreran	114	121	127	196	186	189	212	205	214	222	142	167	2.095
Altzola kalea, Gurmendi	396	366	487	395	725	592	656	290	577	623	476	445	6.028
Araba kalea 28, Tanatorio aurrena	291	256	317	392	341	379	445	265	178	347	349	417	3.977
Araba kalea 06, Gurmendi parean	372	294	265	358	356	502	567	245	488	505	327	401	4.680
Etxepare kalea 05, Ixpilla plaza	356	232	283	356	359	289	312	254	424	437	398	323	4.023
Gipuzkoa kalea 62, Oneka gozotegi aurrean	311	278	329	383	430	439	520	295	544	503	350	332	4.714
Gipuzkoa kalea 48, Eguneko zentroa	310	226	351	380	464	456	516	332	524	576	401	460	4.996
Indamendi kalea, 1 athletismo pista	196	214	228	393	191	217	503	209	306	410	379	374	3.620
Indamendi kalea 09, Sanchez aurrean	314	658	230	374	448	294	350	255	295	585	416	484	4.703
Iturbide kalea 04, Dia aurrean	662	231	792	723	1.019	847	938	710	1.044	1.149	943	889	9.947

Iturribide kalea 32, Zarauzko euskaltegi aurrean	173	157	127	185	317	331	356	207	206	219	363	328	2.969
Lapurdi kalea 30, Etxebeste kalea	279	296	186	338	178	265	554	348	175	279	238	259	3.395
Mitxelena kalea 51, Puertas Itxiren aurrean	457	249	417	393	566	511	501	460	570	743	493	521	5.881
Nafarroa kalea 11, Eguzki lore	312	278	414	389	497	453	583	334	638	522	334	354	5.108
Nafarroa kalea 22, Erramu Iturri plaza (Sanz Enea parean)	366	330	381	491	604	780	724	260	659	634	400	470	6.099
Nafarroa kalea 41, Euromar aurrean	276	191	301	307	387	454	410	249	395	419	361	316	4.066
Salbide kalea, Kid´s and us parean	449	307	393	422	442	501	530	376	435	516	468	452	5.291
San Inazio kalea 03, Zaharren egoita	536	320	404	549	671	616	706	390	673	847	493	602	6.807
Talaiamendi bidea, kanpineko igoera (Mendibeltz 08)	115	66	89	133	129	71	180	170	141	131	191	204	1.620
Urdaneta kalea 05, Guria taberna aurrean	271	207	347	311	424	332	550	229	445	510	382	365	4.373
Zelai Ondo plaza 10, Futbol zelai ondoan	383	261	402	584	774	644	612	688	672	795	647	502	6.964
Gaztainpe kalea, Tren geltokia	599	338	505	603	763	706	654	413	905	809	696	445	7.436
Zinkunegi kalea 06, Pilartxoenea jolas parke ondoan	488	381	549	504	850	753	827	303	907	883	547	708	7.700
Zuberoa kalea 24, Kiroldegi atzean	467	351	429	520	607	740	699	410	727	808	536	704	6.998
Zuberoa kalea 16, Kikara tabernaren parean	430	319	277	490	562	939	636	436	602	717	553	563	6.524
Lanpardo kalea 06, Izeta plaza	208	168	150	247	261	381	247	393	350	437	194	240	3.276
Zarauzko garbigunea	142	68	162	230	261	145	265	188	219	278	190	254	2.402
Araba kalea, Eroski	582	546	457	669	695	739	777	426	805	1.051	496	490	7.733

Araba kalea, Eroski	414	297	395	471	459	448	602	484	478	671	504	540	5.763
GUZTIRA	10.479	8.271	9.882	12.018	14.198	14.363	15.908	10.031	14.815	16.976	12.528	12.818	152.287
ZUMAIA													
Aita mari auzoa 29, Futbol zelaia	1.034	741	797	989	1.265	1.532	1.240	874	1.010	1.113	1.087	1035	12.717
Alai Auzategia 19	361	337	439	455	387	590	581	327	691	356	522	631	5.677
Alai Auzategia 10, Eroski	980	726	608	1.023	1.586	1.545	1.052	877	1.054	1.198	1.172	867	12.688
Ardantzabide kalea 8, plazoleta	625	537	488	658	778	819	711	545	879	867	806	851	8.564
Basusta bidea 10, kanpina	157	117	183	178	181	142	221	115	148	158	142	140	1.882
Estazioa kalea 16	124	165	89	215	169	205	266	203	381	199	262	265	2.543
Izaga kalea 03, Odriozola ardoak	428	352	309	473	690	537	487	382	690	427	544	509	5.828
Larretxo 07 (Flysh hotela)	382	381	380	407	511	436	418	312	476	439	540	417	5.099
Oikia, erdigunea	247	226	313	285	351	261	360	296	400	330	271	274	3.614
Txomin Agirre, Zuolaga plaza	592	507	525	663	644	894	755	524	710	845	792	511	7.962
Amaia plaza, Itzurun zuhaitzbidea	740	525	629	608	797	1.057	831	673	785	736	801	854	9.036
Zumaiako garbigunea	401	464	344	424	722	416	478	249	536	339	416	251	5.040
GUZTIRA	6.070	5.078	5.104	6.378	8.081	8.434	7.400	5.377	7.760	7.007	7.355	6.605	80.649
GUZTIRA	**22.928**	**18.402**	**20.419**	**25.251**	**29.423**	**30.398**	**30.653**	**21.011**	**29.241**	**31.329**	**27.227**	**25.351**	**311.633**

2026IKIE0003

II.ERANSKINA. ARROPA ETA TAMAINA TXIKIKO OBJETUAK BILTZEKO EDUKIONTZIEN KOKAPENA ETA HUSTUTZEKO MAIZTASUN MINIMOA

Herria	Bilketa puntua	Edukiontzi kopurua	Asteko bilketa maiztasuna
AIA	Juan Etorle kalea 15, Lardizabal parkina	5	1
	Andatza 21, San Pedro, Olaetxe parean		1
	Armendigain kalea 30		1
	Santiagoerreka auzoa 16, Babes ofizialeko etxe ondoan		1
	Aia-Orioko garbigunea		1
GETARIA	Sahatsaga kalea 04, Garaje ondoan, Etxola	5	2
	Portua 19, Viveros San Anton parean		2
	Herrerieta kalea 12, Merke supermerkatu aurrean		2
	Kristobal Balentziaga kalea 14, anbulategi aurrean		2
	San Prudentzio auzoa 07, San Prudentzio hotela		1
ORIO	Futbol zelaia, etxola (Zelai Ondo plaza 10)	7	3
	Zaragueta herri eskola (Abaromendi 11)		3
	Anibarko portua poligonoa 16		2
	Arrantzale kalea 04, Herri ikastola aurrean		3
	Estropalari kalea 18		2
	Iturbide kalea 04, Danbolin ondoan		3
	Aita Lertxundi, 22 Cta. Nacional 634		3
ZARAUTZ	Allemendi kalea 02, Torre Sarakatua (Masusta)	30	1
	Allemendi kalea 50, Torreoiko parke sarreran		1
	Altzola kalea, Gurmendi		3
	Araba kalea 28, Tanatorio aurrena		2
	Araba kalea 06, Gurmendi parean		2
	Etxepare kalea 05, Ixpilla plaza		3
	Gipuzkoa kalea 62, Oneka gozotegi aurrean		3
	Gipuzkoa kalea 48, Eguneko zentroa		3
	Indamendi kalea, 1 athletismo pista		2
	Indamendi kalea 09, Sanchez aurrean		2
	Iturbide kalea 04, Dia aurrean		3
	Iturribide kalea 32, Zarauzko euskaltegi aurrean		2
	Lapurdi kalea 30, Etxebeste kalea		2
	Mitxelena kalea 51, Puertas Itxiren aurrean		3
	Nafarroa kalea 11, Eguzki lore		2

	Nafarroa kalea 22, Erramu Iturri plaza (Sanz Enea parean)		3
	Nafarroa kalea 41, Euromar aurrean		3
	Salbide kalea, Kid´s and us parean		3
	San Inazio kalea 03, Zaharren egoita		3
	Talaiamendi bidea, kanpineko igoera (Mendibeltz 08)		3
	Urdaneta kalea 05, Guria taberna aurrean		3
	Zelai Ondo plaza 10, Futbol zelai ondoan		3
	Gaztainpe kalea, Tren geltokia		3
	Zinkunegi kalea 06, Pilartxoenea jolas parke ondoan		3
	Zuberoa kalea 24, Kiroldegi atzean		3
	Zuberoa kalea 16, Kikara tabernaren parean		3
	Lanpardo kalea 06, Izeta plaza		2
	Zarauzko garbigunea		1
	Araba kalea, Eroski		3
	Araba kalea, Eroski		3
ZUMAIA	Aita mari auzoa 29, Futbol zelaia	12	3
	Alai Auzategia 19		3
	Alai Auzategia 10, Eroski		3
	Ardantzabide kalea 8, plazoleta		3
	Basusta bidea 10, kanpina		1
	Estazioa kalea 16		1
	Izaga kalea 03, Odriozola ardoak		3
	Larretxo 07 (Flysh hotela)		3
	Oikia, erdigunea		2
	Txomin Agirre, Zuolaga plaza		3
	Amaia plaza, Itzurun zuhaitzbidea		3
	Zumaiako garbigunea		1

UROLA KOSTAKO
UDAL ELKARTEA

2026IKIE0003

III.ERANSKINA. UROLA KOSTAN GAUR EGUN INSTALATUTA DAUDEN EDUKIONTZIEN IRUDIAK





